



A K T A

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK egindako ohiko bilkurarena,

2020ko ekainaren 3koa

Bilkura hau bideokonferentzia bidez egin da eta bertaratutakoak telematikoki aurkeztu dira, **13:14ak** direnean, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta M^a Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzordekideak konektatu dira bideokonferentzian:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)

Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)

Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)

Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Alamillo Udaeta jaunak bideodeia utzi du 13:45ean, eguneko gai-zerrendako 9. puntua hastear zegoenean.

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Gainera, Kuadrillako teknikari gisa honako hauek konektatu dira, bakoitzaren arloetako puntuak azaltzeko: Gianfranco Ghiro eta Arbaizagoitia eta Dueñas andreak.

Bilkura telematikoki egin da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren Bigarren Azkeneko Xedapenean ezarritakoaren arabera; izan ere, horrek apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea aldatzen du eta 46. artikuluari 3. atala gehitzen dio, organo honek bilkura telematikoak egitea baimentzen duena, aintzat hartuta Covid-19ak sortutako ezohiko egoera dela eta.

Kuadrillako batzordeburu jaunak hasiera eman dio ezohiko bilkurari, **lehenengo deialdian, 13:14ak** direnean. Idazkari andreak, azaroaren 25eko 63/1989 Foru Arauak,



Kuadrillak arautzen dituenak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari lotuta (besteak beste, abenduaren 2ko 57/2003 Legeak AJaren inguruan aldatzen duena), bere 16. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, saioari hasiera emateko beharrezkoa den quoruma egiaztatu egin du, eta ezarritako eguneko aztergaien zerrendari, lehen deialdian, jarraitzeko agindu du.

1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, hori aztertzeko, eta ez dagoenez inongo alegaziorik, **ERABAKI DA**, aho batez, 2020-05-20ko bilkuraren akta onestea.

2.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKORA ATXIKITZEKO PROTOKOLOA

Jakinarazi da organo honen kideen informazio eta analisirako, Atxikitze-hitzarmenaren zirriborroa erantsi dela eta hori Kuadrillako Batzordeak onesti beharko duela. Dokumentu horretan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazioarekin 2017ko martxoaren 24an eta Arabako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 11n sinatutako administrazio elektronikoko oinarritzko konponbideak elkarren artean emateko Lankidetzeta-hitzarmenetara Atxikitze Protokoloa dago idatzita.

Auziaz ez denez eztabaidatu, bozketa egin da eta aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea eta berrestea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazioarekin 2017ko martxoaren 24an eta Arabako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 11n sinatutako administrazio elektronikoko oinarritzko konponbideak elkarren artean emateko Lankidetzeta-hitzarmenetara Atxikitze Protokoloa.

3.- TEFFFaren BALDINTZARIK GABEKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERAREN BERRI EMATEA

Jakinarazi da pasa den astean, urtero bezala, TEFFFaren Baldintzarik Gabeko Dirulaguntza eskatu genuela, **54.000 euroko** zenbatekoan.

Gai honen inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakinaren gainean geratu dira.



4.- 2020ko TEFFFaren MURRIZKETAREN INGURUKO INFORMAZIOA

Foru Aldundiak Aiarako Kuadrillari bidalitako oharren bidez, honako hau jakinarazi da 2020ko Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzari (TEFFF) dagokionez:

2020KO BEHIN BENINEKO HASIERAKO PARTAIDETZAK / PARTICIPACION INICIAL DEFINITIVA 2020

KUA DRILLA / CUA DRILLA	TRAMO CONDICIONADO	TRAMO NO CONDICIONADO			GUZTIRA /TOTAL AMBOS TRAMOS
	A FA -REN EKA RPENA , GUZTIRA / TOTAL A PORTACIÓN D.F.A .	FINKOA / FIJO	OINA RRIZKO TARTEA / TRAMO BÁ SICO	A FA -REN EKA RPENA , GUZTIRA / TOTAL A PORTACIÓN D.F.A .	
AYALA	274.659,34	67.613,86	721.480,58	789.094,44	1.063.753,78

2020KO KITAPEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN LIQUIDACIÓN 2020

KUA DRILLA / CUA DRILLA	TRAMO CONDICIONADO	TRAMO NO CONDICIONADO			GUZTIRA /TOTAL AMBOS TRAMOS
	A FA -REN EKA RPENA , GUZTIRA / TOTAL A PORTACIÓN D.F.A .	FINKOA / FIJO	KITAPENA RE N OINA RRIZKO TARTEA / TRAMO BÁ SICO LIQUIDA CIÓN	2020KO KITAPEN AURREIKUSP ENA / PREVISIÓN LIQUIDA CIÓN 2020	
AYALA	274.659,34	67.613,86	537.815,64	605.429,50	880.088,84

Hasiera batean, eta 2020ko TEFFFaren likidatzearen aurreikuspena betetzen bada, espero dugu aldundiaren finantzaketak **Oinarrizko Tartean 183.664,94 euroko minorazioa** sortuko luke.

Azalpena bukatu da, eta guztiak jakinaren gainean geratu dira.

5.- COVID-19aren KONTINGENTZIA PLANAREN JARDUKETA- INSTRUKZIOA



Jakinarazi da Mutuak Covid-19aren Kontingentzia Planaren Eranskin berri bat igorri duela, organo honen aurreko bilkuran onetsi zena. Horretan Covid-19aren Larrialdi kasuan jarduketa-instrukzioa du, hau da, gaixotasun horren sintomak edo kutsatzeak daudenean jarduteko protokoloa adierazten du.

Gai honen inguruan ez denez eztabaidarik sortu, denak jakinaren gainean geratu dira.

6.- VITAL FUNDAZIOA: PRESTAKUNTZA-IKASTAROEN ESLEIPENEN PROPOSAMENA

Arloko teknikari Ghiro jaunak azaldu du, aurreko bilkuran adierazi zen moduan, abian daudela VITAL Fundazioarekin Lankidetzeta-hitzarmenaren bidez finantzatutako prestakuntzak. Hori gauzatuko duela fundazioak baieztatu du, baina sinatzeke dago oraindik.

Hori dela eta, gutxi barru on-line egingo diren bi prestakuntza proposatu dira. Lau *Ekin* tailer, ekintzaile eta enpresei aholkularitza ematekoak; bakoitzeko 300 euro. Zorraquino enpresaren “Crisis Trends” aurkezpena.

Azterketa amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

AINTZAT HARTU DA egun Vital Fundazioarekin sinatzen den hitzarmenaren zenbatekoa 10.000 eurokoa dela eta enplegurako prestakuntzara bideratuta dagoela.

AINTZAT HARTU DA Covid-19ak sortutako pandemiaren ondoriozko alarma-egoeratik egungo egoerak eskatzen duela prestakuntza ez izatea aurrez aurrekoa, ahal den heinean.

AINTZAT HARTU DIRA ADR Zabaia, Laudio Garapen Agentzia eta Amurrio Bidean enpresek egindako jarduketan proposamenak.

AINTZAT HARTU DA nahikoa kreditua dagoela 241 227 999 partidan.

IKUSI DA maiatzaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordearen erabakia; horren bidez onetsi egiten ziren lau prestakuntza-jarduketan esleipena eta ikastaroak esleitzeko proposamena duen maiatzaren 27ko sustapen ekonomikoko teknikariaren txostena.

LEHENENGOA Esleitzea **GESTIONA XXI CONSULTING SL** enpresari ekintzaileen aholkularitzarako lau *Ekin* tailer egitea, **MILA BERREHUN EUROKO eta BEZik GABEKO (1.200,00 euro BEZik gabe)** zenbatekoa duen aurrekontuaren arabera; tailer bakoitzeko 300 euro gehi BEZa kobratuko dute.

BIGARRENA Esleitzea **ZORRAQUINO COMUNICACIÓN SLU** enpresari “Crisis Trends” aurkezpena egitea, **SEIHEUN EURO GEHI BEZa (600,00 euro gehi BEZa)** dituen aurrekontuaren arabera.



7.- CESPari HHSen ZEHAPEN-ESPEDIENTEA: CESPak AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI ERANTZUTEA ETA ZEHAPEN-PROPOSAMENA

CESPA enpresak 2020ko apirilaren 21ean (Sarrera-erregistro zk.: 229) alegazioak aurkeztu zituen kontratua behar ez bezala betetzeagatik zehapen-proposamenarekiko. Horrez gain, ikusi da organo honen maiatzaren 20ko bilkuran erabakitako Udalen nahia, baita kontratazioan aditua den Umerez jaunak zein ingurumen teknikari Dueñas andreak igorritako txosten teknikoak. Jarraian, bi dokumentuak azaldu dituzte.

Ingurumen teknikaria den **Dueñas andreak** CESPA enpresak aurkeztutako alegazioetako bakoitzari egindako jarraipen sistematikoa azaldu du; jarraipen hori analisi tekniko gisa islatu da. Ondoren, alegazioei erantzun die, dokumentazio tekniko horretan oinarrituta eta arrazoi bakoitzaren 3 justifikazio-eranskinen arabera Horiek honako hau jasotzen dute:

- Zerbitzua behar ez bezala betetzearen edo ez-betetzearen gertakarien informazio grafikoa (argazkia).
- Enpresaren arduradun eta langileekin izandako elkarrizketak.
- Gertakari askoren excel kronologikoa.

Jarraian, txosten osoaren azterketa egin da eta ondorioztatu da CESPak aurkeztutako alegazioei erantzuten dien txosten hori aurretiaz enpresari kontratua behar bezala ez betetzeagatik igorritako zehapen-proposamena proposatzeko bidalitakoaren berdina dela (baina osatuagoa eta oinarri handiagoekin). Edonola ere, enpresak egindako alegazio gutxi batzuk eta ez oso garrantzitsuak onetsi dira, horiek esanguratsuak ez badira ere.

Jarraian idazkari andreak esku hartu du eta **Umerez jaunaren txosten juridikoaren laburpen bat** egin du. **Horrek honako hau dio:**

- Lehenik eta behin, CESPak 2020ko apirilaren 21ean aurkeztutako **alegazioei erantzuteko aztertutako dokumentazio** guztia aipatzen da txostenean.

-CESPAk aurkeztutako alegazioak 3 aurkaritza-arrazoitan oinarritzen dira:

1.- 34/2020 DEKRETUAN EGIAZTATUTAKO EZ-BETEZEAK EZ EGOTEA EGIAZTATUTA.

2.- TIPIKOTASUN PRINTZIPIOA HAUSTEA.

3.- PROPORZIONALTASUN PRINTZIPIOA HAUSTEA.

1.- 34/2020 DEKRETUAN EGIAZTATUTAKO EZ-BETETZEAK EZ EGOTEA EGIAZTATUTA.



Arlo honen inguruko arrazoiketa kontratuaren ez-betetze guztien txosten tekniko zabalean oinarrituta dago eta CESPAREN alegazio gehienekiko kontraesanak sortzen zituen, baita aitortza txiki, puntual eta garrantzirik gabekoren bat.

CESPAN berak aitortu du atez ateko bilketa eta arrandegien bilketa ez duela bete. Ondorioz, 12.331,72 euroko deskontua izango du.

Gainera, enpresak aurkeztutako alegazioen aurka oinarritu eta egiaztatzeko aurkeztutako txosten teknikoak 3 atal handi ditu, eta, horietan, honako hau dago: argazkiak, kontratistarekin elkarriketak eta ez-betetze zenbatezinen erregistro kronologiko bat.

“Arrazoi beragatik birritan zehapena jartzea” alegazioari dagokionez, lehenengo txosten juridikoan justifikatzen da eta azaldu egiten da bateragarriak direla deskontua aplikatzea zerbitzua ez emateagatik eta ez-betetzeengatik zehapenak jartzea, Legearen eta Pleguen arabera.

Alegazio batzuk, oso gutxi eta puntualak, onartu arren, EZ da aldatzen zerbitzuaren eginkizun guztiak bete ez izana, txosten tekniko arrazoiketa eta ñabardurekin.

ONDORIOZ, 34/2020 Dekretuan sartutako bi proposamenak mantenduko dira: eman gabeko zerbitzuak deskontatzea eta ezarritako zehapenen ez-betetzeen kategoriak.

2.- TIPIKOTASUN ETA PROPORZIONALTASUN PRINTZPIOAK HAUSTEA

CESPAN alegatu du tipikotasun eta proportzionaltasun printzipioen haustura, eta horrek administrazio publikoen zehapen-ahalmenaren oinarri gisa balio du. **Alegazioak gutxietsi behar dira, bi arrazoi nagusirengatik:**

- **Akats formal bat:** ez garelako administrazioaren zehapen-ahalmena ezartzen a, **kontratuan dagoen eta zigorra duen klausula bat aplikatzen ari gara.**
- **Beste arrazoi garrantzitsu bat: proposatutako zehapenak kontratuan ezarritakora egokitzen direlako;** hau da, kontratuaren klausulen arabera ezarritako zehapenetako bakoitzaren graduazioaren eta aurreikusitako ekintza egiaztatuen kalifikazioaren arabera dira.

Bi arrazoi horiek oso arrazoiturik daude txosten horretan zehapenerako aplikatu daitekeen jurisprudentzia azaltzearen bidez.

Gaia aztertu dute, eta horri buruzko eztabaida amaitu da; hala, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

Beraz, behar bezala egiaztatu dira, horretarako egindako hainbat txostenetan, CESPAN enpresak egindako kontratuaren ez-betetzeak, Aiarako Kuadrillako etxeko hondakinen eta atxikitakoen Bilketa eta Garraiorako zerbitzuaren kontratuan.

AINZAT HARTU DA aipatutako ez-betetze horien kalifikazioak, agiritan berariaz aurreikusitako kontratuko arau-hausteei dagozkien kategorietan taldekatzeak eta kontratuko arau-hauste horien arabera proposatutako zigorrak mailakatzeak kontratuan aurreikusitakoa betetzen duela, eta kontratistaren betebeharrak betetzea bultzatzeko hertsatzeko funtzioa duela.

IKUSI DIRA 2020ko ekainaren 2an kontratazioan aditua den Umerez jaunaren espedientea eta Kuadrillako ingurumen teknikariaren 2020ko maiatzaren 29ko espedientea (horren hiru eranskinekin) islatzen dituzten txosten juridiko eta teknikoak, CESPAN SA



enpresak 2020ko apirilaren 21ean (Kuadrillako sarrera-erregistroko zk.: 229) aurkeztutako alegazioei erantzun gisa.

LEHENENGOA.- CESPAS enpresaren alegazioak aztertu ondoren, onestea apirilaren 2ko 34/2020 Presidentetzaren Dekretuan ezarritako ebazpen-proposamena mantentzea eta proposatzea kontratuaren fakturaziotik **hamabi mila hirurehun eta hogeita hamaika euro eta bi zentimoko (12.331,72 €)** zenbatekoa deskontatzea, aipatutako txostenetan adierazitako hilabeteetan eman gabe geratutako zerbitzuengatik.

BIGARRENA.- CESPAS enpresaren alegazioak aztertu ondoren, onestea apirilaren 2ko 34/2020 Presidentetza Dekretuan ezarritako ebazpen-proposamena, eta kontratuaren ez-betetzeengatik, gauzatzeak atzeratzeengatik, betetze akastunengatik eta informazio-betebeharren akatsengatik batzordearen txosten juridikoan eta teknikoan ezarritako zehapenak ezartzea, erabaki honen oinarrietan jasotako arrazoiketaren arabera. Zehapenaren zenbatekoa **hirurogei mila eurokoa (60.000 €)** izango da.

HIRUGARRENA.- “Interesdunarentzako entzunaldia” izapide berri bat irekitzea, hamar (10) egun baliaduneko epean, bere eskubideekin dagokiona alegatu dezan.

LAUGARRENA.- Erabaki hau CESPAS enpresari jakinaraztea eta txostenak, teknikoak (eta horren hiru eranskin gehigarriak) eta juridikoak, eranstea, horiek baitira 2020ko apirilaren 27an enpresak aurkeztutako alegazioei erantzuteko oinarri.

8.- NEGUKO BIDEZAINNTZA. AFARI ESKAERA, 2020-2021eko KANPAINARAKO KAMIOI BERRI BAT EGOKITZEKO

Arloko teknikaria den Dueñas andreak jakinarazi du 2018. urtetik, Laudioko suhiltzaileek ibilgailua aldatu zutenetik, soilik kamioi bat dagoela eskualde osoan neguko bidezaintzarako lanak egin ahal izateko. Aldundiaren zerbitzuarekin adostutakoa da haiek ekipoa (palaren akoplatzea eta gatz-hornitzailea) prestatuko zuten eta guk datorren kanpainaren gure ekipoen barnean sartu genezakeen, baina horren lanak honako hauek izan behar ziren: *Aiarako Sare osoan errefortzuak eta Arabako Lurralde Historikoko beste errepide batzuetan errefortzua.*

Ekipoa prest jartzeko, Arabako Foru Aldundiari eskaera formal bat egin beharko zaio, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatu titularrari zuzendutakoa.

Gaia aztertu dute, eta horri buruzko eztabaida amaitu da; hala, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- AFARI eskatzea bigarren kamioi bat sartzea neguko bidezaintzarako Aiarako Kuadrillaren 2020-21 ekitaldirako eta eskatzea zerbitzua Aiarako Kuadrillaren foru-errepideen sarea lehentasunezko zerbitzurako eranstea.



9.- “2020-2023 MITERD HONDAKINETARAKO LAGUNTZAK” DEIALDIRAKO HONDAKINENTZAKO LAGUNTZA ESKATZEA

Ingurumen saileko Arbaizagoitia teknikari andreak adierazi du maiatzaren 12an Trantsizio Ekologikoko eta Erronka Demografikoko Ministerioaren 2020ko laguntzen deialdi berriaren oinarriak ezarriko direla, Hondakinen Kudeaketarako Estatuko Markoko Planaren barruan dauden proiektuak gauzatzeko. Oinarriak aztertu ondoren, aintzat hartu dira gauzatzeko (2023. urtera arte) eta Kuadrillaren beharren arabera, egokitzen jotzen da honako laguntza-eskaera hauek egitea:

- **Konpostatze-arloari dagokionez:** Komunitatekoa ezartzeko ekintzak eta Aiaraldeko Konpostagailuen Sarea handitzea. Laguntzen ildoko oinarriak aplikatzean, aurreikusten da gehienez ere **62.656 euroko (% 80ko BEZa barne)** dirulaguntza emango dela. **Dirulaguntza hori AFaren laguntzarekin bateragarria da, baina ez da aurreikusten 2020/12/31 baino lehenago lantzea.**
- **Bio-hondakinak eta inautestaren abarrak biltzeari dagokionez:** Inausketaren abarrak biltzeko eta sortzaile handien zein etxeko-eremuko bio-hondakinak biltzeko ekintzak gauzatzeko ezartzea. Laguntzen ildoko oinarriak aplikatzean, aurreikusten da gehienez ere **82.690 euroko** dirulaguntza emango dela. **Dirulaguntza hau AFaren laguntzarekin bateragarria da. Laguntzak ebatzi ondoren, ateratako sortutako emaitzak aztertuko dira, ildo bakoitzaren premisak aplikatuta eta aurreko taulan jasotako alderdi bakoitza burutzeko aldia kontuan hartuta.**

Laguntzen edukiaren inguruko eta hondakin horien bilketaren inguruko eztabaida hasi da.

Auziaz luze eztabaidatu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- “2020-2023 MITERD hondakinatarako laguntzak” deialdiaren dirulaguntzak eskatzea, honako eduki honen arabera:

- **Konpostatze-arloari dagokionez:** Komunitatekoa ezartzeko ekintzak eta Aiaraldeko Konpostagailuen Sarea handitzea. Proiektuaren edukia eta irismena jarraian dago laburtuta:

	€/UN IT	UNIT.	€
Etxeko konpostatzea egiteko aurrez aurreko ikastaroak	400	13	5.200 €
Komunitateko konpostatzearen prestakuntza eta hedapenerako hitzaldiak	400	15	6.000 €
Web-mintegiak: gaikako prestakuntza eta hitzaldiak	500	2	500 €



Aholkularitza teknikoa jarraipenean			5.000 €.
Gestionprena, sare sozialak eta beste komunikazio-ekintza batzuk			2.000 €
Komunitateko konpostatzerako eremuak egokitzeko lanak	2.500 €	14	35.000 €
400 L-ko konpostagailuak	176	90	15.840 €
Aire emaileak	134	30	4.020 €
Ontziak	28	20	560 €
Termometroa	14	50	700 €
Bahegailuak	14	50	700 €
Laginen analisiak	14	250	3.500 €
GUZTIRA			78.320 €

- **Bio-hondakinak eta inautestaren gainerakoak biltzeari dagokionez:**
Inausketaren abarrak biltzeko eta sortzaile handien zein etxeko-eremuko bio-hondakinak biltzeko ekintzak gauzatzea ezartzea. Proiektuaren edukia eta irismena jarraian dago laburtuta:

Materiala	Unitateak	€/UNITATEKO BEZa barne	€ {0><}99{>BEZa BARNE<0}
Komunikazioa Prestakuntza	On line ekintzak, sare sozialak, etab. Sortzaile handien inkestean kanpaina, iritzi-ikerketak. Informazio-puntuak edota komunikazio, sentsibilizazio- eta/edo etxeko eta sortzaile handien materialen banaketarako ekintzak Atarrietan, minipuntuetan, informazio-tauletan eta abarretan informazio-triptiko eta kartelak jartzea. Irratiko iragarki laburrak eta informazio-ohar asko.	ALDAKORRA	30.000 €.
Edukiontzia	51 unitate, CLtan, txiparekin eta tapa itxiarekin.	950 €	48.450 €
	6 unitate, CLtan, txiparekin eta tapa itxiarekin.	250 €	1.500 €
	Inautestaren abarrak biltzeari lotutako material edo zakuen 70 unitate.	200 €	14.000 €
Ontziak	10 litroko etxeko erabilerarako 3.800 unitate	4 €	15.200 €
	Sortzaile handientzako erabilerarako 100 unitate	50 €	5.000 €
Beste material batzuk	Giltza edo txartelen 3.800 unitate	1 €	3.800 €
	Ordezko sarrailen 50 unitate	40 €	2.000 €
	10 litroko konposta daitezkeen poltsen 380.000 unitate	0,05 €	19.000 €
	40 litroko konposta daitezkeen poltsen 120.000 unitate	0,2 €	24.000 €
GUZTIRA		-	137.95 €



**10.- TOKIKO AGENDA 21: TOKIKO AGENDA 21
DINAMIZATZEKO KONTRATAZIOA**

Dueñas ingurumen teknikari andreak azaldu du Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko irailaren 17an hartutako erabakiaren bidez TOKIKO AGENDA 21 proiekturako dirulaguntza eskatzen zela 2019-2020 ikasturterako, eta, era berean, erabaki horren bidez garapen jasagarria sustatuko duten jarduerak egitea erabaki da. Eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa 7.931,94 euro da.

Aiarako Kuadrillak, aurreko ikasturteetan bezala, aurreikusten zuen ikasturtean zehar hainbat eskola-jarduera gauzatzea Eskola Agenda 21 programaren markoaren barnean. Eskola Foruan sartutako jarduera horietariko asko osasun-alarmagatik bertan behera utzi ziren. Hala ere, hainbat bileraren ondoren, aurreikusi da ikasturtean zehar jarduera horietariko batzuk gauzatzea, eta datorren ikasturtearen hasieran foro bat egoteko aukera barne hartu da. Kontratazio hori eten egin zen, baina aipatutako proiektuari berrekin zaio. 3 aurrekontu eskatu genituen, honako hiru enpresa hauei: *Ekin Consultoría*, *Galemys SL*, eta *Ortzadar SL*. Lehenengo bi enpresek soilik aurkeztu zuten eskaintza bat.

Honako hau da eskaintzen ezaugarri nagusien laburpena:

Enpresa	Prezioak BEZik gabe	Ezaugarriak.
<i>Ekin Consultoría.</i>	2.550,00 €	- Proposamena osatu eta igortzea - Foroa egitea (dinamikak) - Amaierako txostena osatzea Ez du BEZik izango, abenduaren 28ko Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen 37/1992 Legearen 20.1.10 artikulua araberakoa.
<i>Galemys SL</i>	1.857,25 €	- Proposamena osatu eta igortzea - Foroa egitea (dinamikak) - Tailerrak gauzatzeko materialak - Materialak sortzea. Materialetan prezioak BEZa barne du, baina ez da BEZik ezarriko barne hartu ez den material didaktikorako

Eztabaida amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Txosten teknikoa ikusi ondoren, onetsi da zerbitzua **GALEMYS SL** enpresari esleitzea, **1.857,15 euroko** (BEZa barne) zenbatekoarekin. Izan ere, kalitatea eta prezioa hobekien uztartzen zituen enpresa zen eta horrelako jarduketetarako material didaktikoak eta Eskola Foroak dinamizatzean esperientzia gehien duen enpresa da.

BIGARRENA.- Kontratuaren gauzatzea Covid-19aren pandemiak sortutako ezohiko gertakarien garapenaren arabera izango da.



11.- HONDAKINEN ZERBITZUAREN KOSTUAK BANATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEA: OKONDOKO GARBIGUNEAREN KOSTUA FINANTZATZEA

Ingurumen teknikaria den Dueñas andreak jakinarazi du 2020ko maiatzaren 20an egindako TGBan behin betiko onetsi zirela hondakinen zerbitzuaren kostuak banatzeko irizpideak. Edonola ere, onesteke geratu zen zerbitzuetako bat, zehazki, “Okondoko Garbiguneko” GARBIKETARI (kudeaketarik ez) dagokiona. Hori CESPAn enpresak egiten du eta horren kostua 2019 ekitaldian 2.699,17 euro izan zen.

Banatzeko irizpide horren azterketa teknikoa egin ondoren, zerbitzu hau banatzeko hiru irizpide posible daude, eta horiek honako hauek dira:

1.- 2019ko abenduaren 11n onetsitako erabakia mantentzea; horren irizpidea zen banatzea herritarren ehunekoaren arabera ezartzea. Izan ere, LAPa zerbitzu publiko bat da eta edozein herritarrentzat egon behar du eskuragarri, berdin du non bizi den.

2.- Kostua banatzea (herrika) Garbigunea ez duten udalerrien artean (Aiara, Artziniega, Okondo).

3.- Okondo udalerriari ezartzea zerbitzu honen kostuaren % 100.

Aipatutako irizpide horren eztabaida luze bat sortzen da eta adierazi da ez dela kostu hori sortzen zerbitzu horren kudeaketatik. Berez, herritarrek egiten duten erabilera txarragatik sortu da. Erabilerari, erabiltzaileei, zerbitzuaren eskaerari eta aurkeztutako arazoei buruz hitz egin da. Zerbitzua desegitearen aukera aztertu da eta hori tamaina handiko hondakinen bilketa handitzearekin ordeztzea.

Auziaz luze eztabaidatu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Irizpide hau onestea zerbitzuaren azterketaren arabera izatea, Okondoko Landa Garbiguneko zerbitzua ezabatzeko aukera eta beste aukera guztiak aztertzeko. Zerbitzua tamaina handiko hondakinen bilketa handitzearekin ordeztzea. Ondorioz, **gaia mahai gainean uzten da**, horren bideragarritasunaren inguruko ikerketa sakonagoa egitearen zain.

12.- ERP RECYCLING ENPRESAREKIN EGINDAKO HITZARMENA BERRITZEKO BEHARRA JAKINARAZTEA (GARBIGUNEAN BILDUTAKO GAILU ELEKTRIKOAK).

2009ko abenduaren 3an Kuadrillak eta ERP enpresak Laudioko Garbigunean utzitako gailu elektrikoak eta elektronikoak biltzeko lankidetzan aritzeko erabaki bat sinatu zuten.



2020ko maiatzaren 18an, ERP enpresa Kuadrillarekin harremanetan jarri zen eta jakinarazi zion beharrezkoa zela erabakia berritzea, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeari egindako aldaketa indarrean sartzen zelako. Aldaketa horrek erabakien indarraldiak aldatzen ditu eta ezartzen du erabakiak 2020ko urriaren 2a baino lehen aldatu beharko direla. Gainera, aldatu egin behar ziren otsailaren 20ko gailu elektrikoaren eta elektronikoaren hondakinei buruzko 110/215 EDaren arabera. Horregatik, hitzarmen berriaren proposamena bidali digute. Horrek bi aldeen arteko lankidetzara arautuko du gailu elektriko eta elektronikoaren hondakinak bereizirik biltzeko Kuadrillak hautatutako eremuetan (gaur egun, Laudioko Garbigunean) eta ERP enpresak behar bezala kudeatzeko.

Arbazagoitia andreak, arloko teknikariak, jakinarazi du puntu hau onetsi baino lehen beharrezkoa dela hori ezabatzearen inguruko azterketa bat egin behar dela, baita Kuadrillak ezarritako betebeharren inguruko azterketa bat ere.

Ez da horren inguruko eztabaidarik sortu, eta aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Gaia mahai gainean uztea, arloko batzordeak proposatutako hitzarmenaren zirriborroa aztertzearen zain.

Puntua amaitzean, teknikariak udalerriei laguntza eskatu die Gasteizko NBEak biltzeko eta horiek uzteko, udal bakoitzari dagozkion loteak egin ahal izateko. Laudioko alkateak logistika errazten laguntzeko baiezkua eman du.

Bilkuraren puntu honetan, presidente andreak jakinarazi da premiaz hainbat puntu berri sartu beharko lirakeela eguneko gai-zerrendan; izan ere, informazioa berandu iritsi da eta ezin izan dituzte bilkuraren deialdian sartu. Aho batez onetsi da honako puntu hauek eguneko gai-zerrendan sartzea horien premiagatik:

- 13.- TURISMO ARLOAREN EGUNGO EGOERA
- 14.- EEPen EGUNGO EGOERA
- 15.-KALE ANTZERKIKO EMANALDIA
- 16.- ERREPIDEEN ETA UDALERRIKO HAINBAT EREMUREN SASTRAKA KENTZEKO FORU ZERBITZUA
- 17.- GARRAIO PUBLIKORAKO “BAT TXARTELAK” ESKURATZEA

13.- TURISMO ARLOAREN EGUNGO EGOERA

Arloko teknikariak, Ghiron jaunak, turismo arloaren espedienteen egoera jakinarazi du. Hori honako hau da:

AFaren Prestakuntzarako Laguntza: jakinarazi da aurten indargabetu egingo dela.



Turismorako Foru Laguntzak: Aurten hitzarturik dauden turismo arloko gastuen inguruko informazioa eskatu digute; izan ere, AFARI egindako turismoko dirulaguntzen eskaerak aztertzen ari dira eta ziurrenik horiek doitu edo murriztu egingo dituzte. Horri dagokionez, honako hauek daude jada esleiturik: ACEVIN elkartearen kuota, turismo zerbitzuaren laguntza teknikoa, sare sozialen kudeaketa, basquemountains eta egiaztagirietan laguntza. Gainerako ekintzak esleitu gabe daude.

Eusko Jaurlaritzaren turismorako laguntzak: eskatu egin behar ditugu, baina ADAren laguntzak jasotzeko ebazpenaren zain gaude, jakiteko zein baliabide ditugun eta gerora egingo ez ditugun ekintzetarako ez eskatzeko. Eusko Jaurlaritzaren kalitate-egiaztagiriei dagokienez, Kode etikoan bateratuko dituzte, baina ez dugu horren inguruko informaziorik.

Publizitatea: Publizitate-proposamenak jaso ditugu. Halere, gaia organo honen teknikariekin aztertu dugu eta gomendatu dute horrelako ekintzak ez aktibatzea eskatutako foru laguntzen ebazpena jaso arte. Horri dagokionez, jakinarazi da plataforma logistiko batean eta gure erakusleioa izango den webgunean ari garela lanean. Hori gure zerbitzuen gidaren antzekoa izango da eta bertan AFA, AGA, Kuadrillako teknikariak eta garapenerako Agentziak ari dira lanean.

Gaia eztabaidatu ondoren, guztiak jakinaren gainean geratu dira.

14.- EEPen EGUNGO EGOERA

Arloko teknikari Ghiri jaunak honako hau jakinarazi du:

2019-20 EEP: ekainean amaituko da eta uztailean udalei eskatuko zaizkie justifikaziorako kontratuak eta nominak.

2020-21 EEP: deialdia hilabete honetan bertan argitaratuko da eta udalek pentsatu behar dute zein ekipo eskatuko dituzten, baita lan batzuk aldatuko dituzten edo zenbat pertsona beharko dituzten.

Gaia eztabaidatu ondoren, guztiak jakinaren gainean geratu dira.

15.-KALE ANTZERKIKO EMANALDIA

Jakinarazi da Kuadrillak Adinekoen Eskualdeko Topaketan egin behar zen emanaldi hau ezabatzean (ez baita topaketa bera ere egingo), Vital Fundazioko teknikariak adierazi duela krisialdi egoera honengatik, erakunde hori kultura sustatzearen alde lan egiten ari dela. Ondorioz, eskatu du erabakia berriz aztertzeko eta jarduera egiteko aukera aztertzeko, topaketan zein Kuadrillako beste edozein udalerritan.



Eztabaida hasi da, eta, horren ondoren, kide guztiek adierazi dute interesa dutela jarduera kultural hori dagokien udalerrian egiteko, baina ez da jarduera egiteko kokapenaren inguruko irizpiderik lortu.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Arloko teknikariak ezartzea jarduera (kale antzerkia) ospatuko den udalerria erabakitzeko irizpideak. Jarduera Vital Fundazioak laguntzen du diruz.

16.- ERREPIDEEN ETA UDALERRIKO HAINBAT EREMUREN SASTRAKA KENTZEKO FORU ZERBITZUA

Eztabaidatu egin da eta adierazi da badakigula AFak urtero egiten duen zerbitzua errepide eta hainbat eremuren, baita hiriko eremuen, garbiketa eta sastraka-kentzea egitekoa dela eta Aldundiaren jabetzako errepideetan egiten duela, baita udalerriko hainbat eremutan ere. Beti kronologia bera mantentzen du, Lurraldeko hegoaldetik hasten dira beti eta gure eremuan amaitzen dute. Beraz, aintzat hartzen da AFari eskatu beharko geniokeela zerbitzuaren hasiera aldatzeko txandakakoa izan dadin Lurralde osoan zehar. Gainera, uste dugu beharrezkoa izango litzatekeela beste modu batean antolatzea, Lurraldeko iparraldean ere hasteko zerbitzua ematen, zehazki Aiarako Kuadrillan hasteko.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez **ONETSI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Arloko teknikariak dagokion Foru Sailari idatzi bat igortzea. Bertan eskatuko du foru errepideen garbiketa eta sastraka kentzeko zerbitzuaren eremukako plangintza aldatzeko, hori urtero lurraldeko eremu ezberdin batean hasteko. Horrela, zerbitzua Lurraldeko iparraldean ere hasi ahal izango da, zehazki, Aiarako Kuadrillaren eremuan.

17.- GARRAIO PUBLIKORAKO “BAT TXARTELAK” ESKURATZEA

Aztertu egin da BAT Txartela eskuratu eta hori kargatzeko dagoen arazoa eta Aiarako herritarrek horrekiko sarbidea izateko modu egokiak proposatu dituzte; izan ere, ez da bideragarria Gasteizeraino joan behar izatea aipatutako kudeaketa horiek egin ahal izateko eta edozein izapide ahalik eta azkarren egin ahal izateko, are gehiago Covid-19ak sortutako egoerak eragindako arazoak kontuan hartuta.

Gaia aztertu ondoren, aho batez **ERABAKI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Arloko teknikariak idatzi bat igortzea dagokion Foru Aldundiko Sailari, udalek BAT Txartela erosi eta kargatzeko sistema bat izateko aukera izan dezaten



edota Aiarako Kuadrillak izapide horiek gauzatzeko beste edozein modu, sistema edo baliabide izan dezan, herritarrek zerbitzu horrekiko sarbide erraza izan dezaten.

18.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Ez denez inongo inguruko galderarik egin, puntua amaitutzat jo da.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, goian aipatutako eguneko **13:05** direnean, bukatutzat eman da bilkura. Presidente jaunak sinatu du eta nik, idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

KUADRILLAKO BATZORDEBURUA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.

IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**